

LANDER MARTÍNEZ HIERRO


EUSKARAREN ERABILERA

Ludwig Wittgenstein filosofo austriarrak hizkuntzaren teoria interesgarria garatu zuen. Lanabes-kutxa batekin alderatu zuen hizkuntza, hain zuzen ere komunikazio-testuinguruaren arabera behar ditugun lanabesak erabili eta gainerakoak baztertzeko aukera ematen digun kutxa batekin. Are gehiago, hizkuntza bakoitzak bere hizkera-jokoak ditu: hau da, eguneroko bizitzan baliatzen ditugun erabilera praktikoak eta adierazpen-moduak. Hizkuntzaren teoria esentzialistak eta errepresentazionalistak alde batera utzita, Wittgensteinen iritzia zen, oso modu laburrean, hizkuntzak errealitatea eraikitzen duela hizkuntzaren beraren jokoaren bitartez eta horietako bakoitzaren tresnen bitartez; hortaz, praktikaren bitartez.

Euskararen erabilera da, izan da eta izango da euskaraz hitz egiten dutenen komunitateak


gainditu beharko duen erronka nagusietako bat. Jakina, komunitate horren baitan biltzen ditut euskararen normalizazioaren eta sustapenaren alde lan egiten duten erakunde, organismo eta elkarte guztiak. Euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak sobera ezagunak dira. Horietako batzuk hezkuntza-ereduarekin daude lotuta; beste batzuk, ohitura pertsonalekin eta inertziekin; eta faktore sozioekonomiko batzuek ere badute zeresana.

Euskalduntzeko doako aukera ezin da bazter utzi. Izan ere, Euskadiko biztanleriak ez dauka eskubide hori gaur egun. Zaila da pentsatzea euskararen erabilera nabarmen gora egin dezakeela hurrengo urteetan, edozein pertsonari, eta bereziki pertsona helduei, euskara beharrezko erraztasunekin ikasteko aukera bermatzen ez bazaien, ikasteko ahaleginaz gain, beste ahaleginik eskatu gabe. Euskadi aldatu egin da ezaugarri soziologikoei eta demografikoei begiratuta; hizkuntza ugari hitz egiten dira gure herrialdean, eta kultura-errealitate asko bizi dira elkarren ondoan. Nolanahi ere, euskararen erabilera nabari den gelditze erlatibotik irteteko, errealitate horiek kontuan hartu beharko ditugu, aipatutako eskubidea



**EUSKARAREN ERABILERA DA, IZAN DA
ETA IZANGO DA EUSKARAZ HITZ EGITEN
DUTENEN KOMUNITATEAK GAINDITU
BEHARKO DUEN ERRONKA NAGUSIETAKO
BAT**

Badakigu lan asko egin behar dugula oraindik, baina badakigu ere gure konpromisoa ekintza eta keinu txikien bidez gauzatzen hasi dela, eta horrek baikor eta arro sentitzeko arrazoiak eman dizkigu. Ekintza eta keinu horien adibide dira instituzioetan ditugun ordezkariak, baita gure militantziaren etengabeko lana ere, hain zuzen ere askotan adierazi baitute alderdiaren baitan, barnean nahiz kanpoan, euskararen erabileran beste pauso bat eman behar genuela. Horregatik guztiagatik, gure alderdiak hazten jarraitzen duen neurri berean, gurean ere euskararen erabilerak eta presentziak gora egingo duela ziurta dezakegu. Pausoz pauso eta neurri onean lan eginez, euskararekin dugun konpromisoak alderdian emaitza zoragarriak izango dituela uste dugu.



bermatzeko behar diren bitarteko neurriak hartu ahal izateko.

Horrez gain, oso garrantzitsua da pertsona bakoitzaren eguneroko errealitateetatik hurbilago dagoen analisia egitea. Gutako bakoitzak euskara nola, noiz eta zergatik erabiltzen dugun aztertzen duen hausnarketa egin behar da, betiere bidean aurkitzen ditugun zailtasunak eta pizgarriak aintzat hartuta. Gure erosotasun-espazioko inertiak eta ohiturak aztertzen dituen autokritika ere egin behar dugu. Eta horrekin lotuta, Ahal Dugu Euskadiren idazkari nagusi lez nire gain daukadan erantzukizuna aintzat hartuta, bai nik bai gure taldeak hausnarketa hori zintzotasunez egin behar dugula uste dut.

Badakigu zein den gure erakundearen hizkuntza-errealitatea. Gaztelania da gure komunikazioetako hizkuntza nagusia. Baina egia da ere euskararen presentziak gora egin duela, hazi eta hobeto antolatu garen heinean. Prozesu horrek aurrera jarraitzen du gaur egun. Zehazki, barne diagnostiko bat egiten ari gara eta, ondoren, gure lehenengo euskara-plana egingo dugu, garrantzitsutzat jotzen ditugun komunikazio-eremuetan euskararen erabilera estandarizatzeko asmoarekin.